

## Herri hizkuntzak

Herri hizkuntzak Konstituzioan sartuz geroztik, plataforma bat antolatu da eskualdeak biltzen dituen, legedia bat ardietsi nahiz beren hizkuntzen garapen iraunkorra segurtatzeko. Iritzi publikoari deigar egiteko, manifestaldiak eginen dira egun berean, 2012ko martxoaren 31an, Aiaciun, Baionan, Kemperren, Perpinyan, Strassburgen, Tolosan, besteak beste. Egoera horretaz baliatuz, interesgarri litzateke "Frantziako hizkuntzen" panorama egitea.

### Zenbat hizkuntza erabiltzen dira Frantzian?

1999ko bi idazkitan, erantzun baditugu oso ezberdinak. Erroldarekin batean egin zen familien inkestan 400 hizkuntza agertzen dira Hexagonoan. Cerquiglini zerrendak 75 hizkuntza kontatzen ditu Metropolitan eta Itsasoz haraindian. Zergatik holako ezberdintasuna ?

Erroldako galdeek ez zuten mugarik finkatzen frantsesaz bestre ama-hizkuntzak eta hizkuntza mintzatuak aipatzerakoan. Ondorioz Familia ikerketako "Hizkuntzen familia bidezko transmisioa" azpitoluan, 300.000 inkestatuek 5.000 hizkuntza izendatu dituzte baina katalogo linguistiko klasikoaren arabera 400 hizkuntza dira. Hauen artean aurkitzen dira eskualdeetako hizkuntzak eta etorkinenak, mugaz gaineko hizkuntzak eta ikastetxeetan ikasiak.

Aldiz Bernard Cerquiglini hizkuntzalariak, Lionel Jospin Lehen Ministroak manaturik, finkatu behar zituen zein hizkuntzek balia zezaketen, gobernuak sinatu berria zuen "Eskualde eta gutiengo hizkuntzen eurokarta". Hots eskualdeztako eta gutiengo hizkuntzak "aspaldidanik erabiliak zirenak Estatu baten lurraldean Estatu hortako biztanleenganik", hizkuntza ofizialak eta beren dialektoak baztertuz bai eta ere "etorkinen hizkuntzak".

Lurraldea ezaugarritzat hartuz, (Cerquiglinirentzat ez da garrantzizkoa), aipatu hizkuntzak bi zatitan bana daitezke Hexagonoan, eskualde hizkuntzak eta etorkinek aspaldian ekarri hizkuntzak. Eskualde hizkuntzen zerrandan daude alsaziera eta Mosellako pratt hizkuntza, euskara, bretoinera, katalana, korsikera, flamenkoa, franko-probentzera, okzitanera bere 5 aldaerekin, oil hizkuntza bere 8 dialektoekin. Etorkinek aspaldian ekarri bost hizkuntza gutituztat onartuak dira : arabiera dialektala, armeniera, berbera, errumaniera eta yiddisha Bainan ez etorkin berrienak, arabera klasikoa, gaztelania, italiara, portugaleria ala poloniera, hizkuntza nagusiak baitira beren jatorrizko herrian.

Itsasoz Haraindian eskualde hizkuntza handienak kreolerak dira, frantses hiztegiaren oinarrituak direnak eta besteak. Hiruetan-hogei bat tokiko hizkuntza badira hala nola Guyanako hizkuntza amerindianoak, Polinesiako hizkuntzak, hizkuntza kanakiarrak. Kaledonia Berria hizkuntza aniztasunaren adibide esanguratsua da. 1996ko erroldaren arabera, 250 000 biztanle ditu, Kortsikan edo Ipar Euskal Herrian bezalatsu. Eta 28 tokiko hizkuntza erabiltzen dituzte, haietan 5 hizkuntza eskualde hizkuntzatzat hartuak direlarik. Hizkuntza batetik bestera hitunen kopuruak oso ezberdinak dira: *drehu* hiztunak 11.000 dira, *pwapwā*-dunak 16 eta *sissho*-dunak 4, frantsesa delarik hizkuntza ofiziala.

Cerquiglini zerrendako hizkuntza guziak arrisku handian dira et badute Euro Kartaren behar gorria edo araberako hizkuntza lege batena.

## Eskualde hizkuntzen erabiltzaileen kopuruak

Hemen eskualde linguistikoak aipatzen ditugu. Batzutan eskualde administratibo baten heinekoak dira, adibidez alsazierarentzat. Edo eskualde administratibo andana bat estaltzen dute, adibidez ok eta oil hizkuntzen eremuak. Edo eskualde administratibo baten zati batean mugatzen dira, hala nola euskara, bretoiera, katalana. Cerquiglini zerrendako izendapenak erabiliz, Hexagonoako 10 eskualde hizkuntzak hartuko ditugu (EH zutabea). Google Tablo ikerketa programak eskualde hizkuntzetako jendetzak aurkezten dizkigu (J zutabea) eta tokiko hiztunen kopuruak (H zutabea). Hemen zenbaki orokorrak ditugu, 1999ko erroldaren bidez zehazten ahal direnak.

(EH) Eskualde hizkuntzak	(J) Eskualde jendetzak Google :	(H) Eskualde hiztunak Tablo % L/P	(I) 2008ko ikasleen kopuruak 18% J	(E) 2008ko EH ikasleak Figaro 11 10 31 % E/I	(B) Ikaskuntza elebiduna Flarep 2010 % B/E
Alsaziera	1 700 000	900 000 %53	309 000	163 820 %53	22 683 %14
Euskara	250 000	72 000 %29	45 000	11 060 %26	11 532 %100
Bretoiera	1 500 000	172 000 %12	270 000	23 432 % 9	19 467 %83
Katalana	370 000	126 000 %34	66 000	13 048 %20	3 053 %24
Korzikera	250 000	150 000 %60	45 000	34 598 %77	7 059 %21
Flamenkoa	1 400 000	30 000 % 2	252 000	720 (?)	123 %17
Franko-prob.	6 000 000	150 000 % 3	1 080 000	275 (?)	165 %60
Oil hizkuntza	35 000 000	204 000 % 1	6 300 000	1761 (galo)	---
Okzitanera	13 000 000	3 000 000 %23	2 340 000	80 000 + % 4	6 875 % 9
Platt hizk.	2 300 000	400 000 %17	414 000	810 (?)	810 %100
Orotara	61 770 000	5 202 000 % 9	11 121 000	329 524 % 3	71 767 %22

Hiztunen kopurua eskualdeko jendetzarekin alderatuz, eskualde hiztunen trinkotasuna agertzen da. Kosikera (%60) eta alsaziera (%53) dira hizkuntza trinkoenak. Beste hiru eskualde hizkuntza jendetzaren herena eta laurdenaren artean kokatzen dira : katalana (%34), euskara (%29) eta okzitanera %23). Oraino bi zifretako ehunekoa pratt hizkuntza (%17) eta bretoierarentzat (%12), Britainiako hiru departamentu britofonoak begiratzuz. Arrunt hiztun ehuneko ahulak franho-probentza (%3), flamenkoa (%2) eta oil hizkuntzentzat (%1), azken hauek Hexagonoako jendetza erdiaren barnean barreiatuak direlarik. Frantsesa aparte, hau baita jendetza osoak erabiltzen duen oil dialektoa.

Antzeko konparaketa egin daiteke ikasle kopuruen (jendetza osoaren %18, I zutabea) eta eskualde hizkuntza bat ikasten dutenen artean (E zutabea). Ikastetxeetako estatistikak agertu ziren 2011-10-31ko Figaro egunkarian, 2008ko ikasturtea erreferentziatzat hartuz, Googleko emaitzekin osatuz flamankoa, franko-probentza eta platt hizkuntzentzat. Ikasleen kopurua harrigarria da alsazieraz (163.820) eta okzitaneraz (80.000 baino gehiago). Baina ikasleen ehunekoa alderatuz hizkunen trinkotasunarekin ikus daiteke zer heinetaraino eskolak eskualde hizkuntza

bakoitza baloratzen duen. Eskolak funtsezko garrantzia ematen die korsikerari (%77), alsazierari (%53) eta euskarari (%30 lehen mailan eta %40 ama eskolan). Ikaskuntza eskasa katalanez (%20 versus %34), bretoieraz (%9 versus %12) eta bereziki okzitaneraz (%4 versus %23). Beste eskualde hizkuntzentzat ikaskuntza sinbolikoa da, bereziki frantsesaz beste oil hizkuntzentzat.

(E) zutabean sartzen dira eskualde hizkuntzen irakasbide guziak, nola astero 3 orenekoa hala murgilbidea. B zutabean sartzen dira ikasbide elebidunaz baliatzen diren ikasleak, eskualde hizkuntza irakaskuntza hizkuntza bilakatzen delarik, edo denbora erdiz, edo denbora osoz hastapenean gero ordutegi banaturantz joanez. Emaizta hauk Flarep elkarteak zabaldu zituen 2010-2011 ikasturterako eta hiru sareak aztertuz, irakaskuntza publikoa, giristinoa eta murgilbidea. Ehunekoek adierazten dute irakaskuntza elebidunaren heina irakasbide guzien artean. (B) zutabea € zutabearekin alderatuz, proportzioa aldatzen da hizkuntza batetik bestera: %100 euskararentzat, %83 bretoiarentzat, %21 eta %24 kortsikera eta katalanarentzat, askoz gutiago alsazierarentzat (%14), bereziki okzitanerarentzat (%9). Ohargarri da irakaskuntza eskas batzuk ikasbide elebiduna erabiltzen dutela nagusiki pratt hizkuntzan (%100), franko-probentzan (%60), flamenkoan (%17).

Itsasoz Haraindiko departamentu eta lurraldeetan 2.663.000 biztanle ziren 2009an. Lehen eta bigarren mailako ikastetxeetan ikasten duten 534.400 ikasleetan, 68.000 ikasle baino gehiagok tokiko hizkuntza ikasten zuten : tahizianoa (50.000 ikasle), kreolera (16.000), hizkuntza melanesianoak (2.000)... Eskualde hizkuntzen ikasleen ehunekoa Hexagogoan baino goragoa da: %13 versus %3. Irakaskuntza elebidunak bere sartzeari egin du 3.869 ekaslerekin kreolera eta 1.668 ikasle hizkuntza melanesioetan.

Egia da eskualde hizkuntzen irakaskuntzak aitzinamendu handia egin duela : 2000. urtean 152.557 ikasle ziren eta 2011an 404.351. Halere hiztunen kopurua gain behera doa, hiztun gehienek 65 urte baino gehiago baitute. Eskualde hizkuntzen problema nagusia jarraipen naturala da. Ikasgeletan ikasi dutenetan zenbatek eskualde hizkuntza beren haurrei transmitituko diete? Dena dela gurasoek seme-alabei irakasten dizkiete gizartean baliagarri diren hizkuntzak. Eta beraz eskualde hizkuntzek onarmen ofiziala hartze dute, legearen eta erakundearen bidez.

## **Eskualde hizkuntzen bizkortasuna**

"Hizkuntzen eta mintzamoldeen familia bidezko transmisioa", hau baita inkesta linguistikoaaren atalburua. 1999ko erroldarekin batean egin zen Familien historien ikerketan kokatua zen. Inkesta hau egin zen boikot mehatxua aitzinatzen zuen ekintza militante baten jarraian. 1995eko Eskualdeen arteko topaketan, parte-hartzaileek Insee erakundearekin negoziatzeko kargua Eukal Erakunde Publikoari eman zioten. Guk nahiago genuen galdeketa soziolinguistiko zehatz bat ekaintzea herritar guzietan, Espainiako erkidegoetan egiten den bezala. Frantziako legeak 3 galde soilik onartzen zituen Familia ikerketari erantzun dioten 380.000 jende helduentzat. Halere lagina gehigarri bat antolatuz Alsazia, Britainia, Euskal Herria, Flandria, Moselle eta Roselloko eskualdeetan.

Galdeak Nazio Batuen Erakundearen 1968ko proposamenaren arabera ziren; noizean behineko ikerketa gomendatzen du ama-hizkuntzaz, etxean erabiltzen den hizkuntzaz eta gizarteko hizkuntza erabilera informalaz. Hona zein ziren galdeak:

*19. Zein hizkuntzetan edo zein mintzamoldetan hitzegiten zizuten zure gurasoek 5 urte inguru zenituelarik ? - Hitzegiten zizuten, usaian ... edo batzutan ...*

20. *Eta zuk zein hizkuntzetan edo zein mintzamoldetan hitzegiten zinuen zure haurrekin 5 urte inguru zutelarik? - Usaian ... edo batzutan ...*

21. *Eta gaur egun gertatzen zaizu hitzegitea zure hurbilekoekin (biziko lagunarekin, jendakiarekin, adiskideekin, laneko lagunekin...) frantsesaz beste hizkuntza batzutan. Baietz bada, zein hizkuntzetan 1 ... 2 ...*

Hona hemen Hexagonoan agertu ziren ondorioak

- Historian lehen aldikotz, Frantzian sortuak diren guziek frantsesa dakite.  
- Frantsesaz beste 400 hizkuntza erabiltzen dituzte jendetzaren %26k (12 milioi hiztunek) usaian edo batzutan, eskualdeetako ondarearen ondorioz edo immigrazioarengatik, mugaz gaineko harremanen edo eskoletako irakaskuntzaren eraginez

- Kanpoko hizkuntzak ez bezala, eskualdeetako edo etorkinen hizkuntzak gain behera doaz frantseseko elebakartasunari lekua utziz. Dena dela 1970az geroztik, eskualde hizkuntza batzuren kurba petik gora abiatu da, eskola ikaskuntzaren eraginez besteak beste.

Zer ondorio atera dezakegu 1999ko Inkestatik? Ezin zen egin egiazko inkesta soziolinguistikorik galde anitzekin. Baina hitzun bereziak kondatu ziren 80 urteko epean, bizi ziren toki guzietan, bai beren eskualdeetan, eta ere Hexagono osoan. Hizkuntza bakoitzarentzat familiako eta eguneroko erabileraren kurba egin daiteke, usaiakoa eta berdin noizean behinekoa. Bai eta ere transmisioaren kurba urtez urte eta adin multzoka.

Taula honek laburbiltzen ditu emaitza orokor batzu, eskualde hizkuntzen artean konparaketa bat egin nahiz bizkortasunari buruz.

(EH) Eskualde hizkuntzak Insee 1999	(N) Noiz-behineko ama hizkuntza	(U) Usaiako ama hizkuntza	(T) Noiz-behineko eta usaiako transmisioa	(J) Usaiako kizkuntz jarraipena	(H) Elebidun aktibo helduak
Alsaziera	240.000	660.000	410.000	53%	548.000
Euskara	50.000	50.000	20.000	43%	44.000
Bretoiera	400.000	280.000	80.000	12%	304.000
Katalana	100.000	70.000	60.000	30%	132.000
Korzikera	100.000	70.000	60.000	34%	188.000
Flamenkoa	50.000	40.000	10.000	12%	--
Franko-prob.	140.000	70.000	15.000	10%	--
Oil hizkuntza	850.000	570.000	300.000	27%	204.000
Okzitanera	1.060.000	610.000	240.000	14%	526.000
Platt hizk.	100.000	70.000	50.000	29%	78.000
Orotara	3.090.000	2.490.000	1.245.000	33%	2.024.000
	4.580.000				

EH zutabeen, Hexagonoko 10 ezkualde hizkuntzak zerrendatu ditugu, agertu ziren 400 hizkuntzetarik bereiziz, beren arteko konparaketa bat egiteko.

N eta U zutabeetan agertzen dira 19. galdearen bi emaitzak: *Zein hizkuntzetan hitzegiten zizuten zure gurasoek 5 urte inguru zenituelarik ? - Hitzegiten zizuten, usaian ...edo batzutan ...* Hizkuntza bakoitzarentzat bereiz daiteke usaian erabiltzen zen familiako hizkuntza edo noizean behin erabiltzen zena frantsesarekin batera.

Eskualde hizkuntzaren usaiako erabilera eskatzen du bi gurasoek hizkuntza hori badakitela. Noizean behineko erabilera neurtzea ez da erretx, familia bakoitzaren egoera ezberdina baita. Gutieneko baldintza da guraso bat elebidun izatea eta eskualde hizkuntan komunikatzea. Kasu honetan haurrak "jatorrizko elebidun" izateko mentura lukete. Ohargarri da alsazierarentzat usaiako erabilera noizean behinekoa baino maizago gertatzen den egoera dela familietan. Biak berdintsu euskararentzat. Beste kasu guzietan noizean behineko erabilera da maizenik gertatzen dena.

T zutabeak biltzen ditu 20. galdearen ondorioak: *20. Eta zuk zein hizkuntzetan hitzegiten zinu zure haurrekin 5 urte inguru zutelarik? - Usaian. ... edo batzutan ...* Familia bidezko transmisioa, noizean behinekoa ala usaiakoa, eskasa da eskualde hizkuntza guzientzat. Abia gaitetzen eskualde hizkuntza usaiako lehen hizkuntzat zuten gurasoetarik (U zutabea). Hauexek dira hobekienik jarraiki diren hizkuntzak: katalana eta korzikera (%86), platt hizkuntza (%71), alsaziera (%62), oil hizkuntza (%53)...

(J) zutabea 20. galdearen beste tratamendu bat da. Oraingo jende helduak dira eta haur denboran beren aitarekin usaian elkualde hizkuntza erabili zuten. Hauetan ehuneko zenbatak usaian erabili dute aipatu hizkuntza beren haurrekin. Usaiako komunikaziorako eskualde hizkuntzaren transmisioa funtsezkoa da alsaziera eta euskararentzat ((%53 eta %43 hurrenez hurren). %30en heinekoa kortsikera, pratt hizkuntza eta oil hizkuntzentzat. Askoz gutiago beste kasuetan.

1999ko errolda oinarritzat hartuz, Google ikerketa programak, hizkuntza zenbaiten jarraipen kurba erakusten du 1914tik 1980arte. Ohargarri da, eskualde hizkuntza batzuren zatik kurba zutitu dela 1970reko hamarkadan, eskola ikaskuntzak osatu edo indartu baitu familia bidezko transmisioa.

(H) zutabeak laburbiltzen ditu 21. galdeari buruzko erantzunak: *21. Gaur egun gertatzen zaizu hitzegitea zure hurbilekoekin frantsesaz beste hizkuntza batzutan. Baietz bada, zein hizkuntzatan 1 ... 2 ...* Zenbakiak eskualde hizkuntza bakoitzarentzat erakusten dute zenbat hiztun heldu (18 urte eta goragokoak) elebidun eraginkor diren eta gai solasaldi bat eramateko. Emaitzak etsigarriak dira Google Tablon agertzen diren eskualdeetako hiztun kopuruei konparatuz. Alabaina kopuru horietan "elebidun hartzaileak" ere sartzen ziren, hots eskualde hizkuntza "ulertzen" zutenak.

Bizkitartean koherentzia bat bada 1999ko errolden emaitzetan. Hizkuntza gehienetan, elebidun aktibo helduen (H) zutabea, usaiako ama hizkuntza dutenen (U) zutabearen antzekoa da Salbu katalana eta kortsikerarentzat, zeinentzat noizean behineko ama hizkuntzaren (N) zutabeko kopuruak gehitu behar baitira. Bestalde

elebidun aktibo helduak, aldi oroz,, familia bidezko transmisioaz baliatu direnak baino gehiago dira (H zutabea versus T zutabea). Ondorioz, erran dezakegu familia bidezko transmisioa ahal bezain usaiakoa izanikan ere, eskolako ikaskuntza beharrezkoa dela eskualde hizkuntzentzat, elebidun eraginkorrak formatzeko.

Eskualde hizkuntzen egoeraz argibide fidagarriak publiko zabalari eskaintzeko, beharrezkoa litzateke hizkuntza bakoitzari buruz egin den azken ikerketa soziolinguistikoa, erakunde publiko batean biltzea, adibidez Frantziako Hizkuntzen Ordezkaritza Nagusia (DGLFLF). Gainera, inkesta "abertzale" baikorregiak edo ezkorregiak bazterretsi nahi baditugu, beharrezkoa da oraingo errolda jarraikian sartzea frantsesaz beste hizkuntzei buruzko hiru galdeak, haurtzaroko hizkuntzetaz, hizkuntzen jarraipenaz eta erabileraz.

*Erramun Bachoc,  
baxok@wanadoo.fr*